



Bertsozale Elkartearen Berripapera

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2026ko OTSAILA - 270. zenbakia

## Batzar Orokorrak: ondo itxi eta hobeto hasteko

**Bertsozale Elkarteko herrialde guztietan egin da edo egingo da batzarra, eta Euskal Herrikoarekin itxiko da: martxoaren 15ean izango da, igandearrekin, Abadiñoko Txanporta kultur gunean.**

Pasa den urtearen argakia ateratzeko eta dagoeneko martxan dugunerako lurra onduta uzteko aukera ematen du Batzar Orokorrak. Egindakoa balioan jartzeko eta baloratzeke ez ezik, etorkizunera begira ditugun erronkei eta bete beharrei nola heldu adosteko ere baliatzen da. Horretan aritu da herrialdez herrialde Bertsozale Elkarteak: Araban hasi eta Gipuzkoaraino bidea eginda.

Izan ere, Arabako Bertsozale Elkarteak izan da Batzar Orokorra egiten lehena. Urtarrilaren 18an izan zen, Gasteizko Izaskun Arrue kulturgunean. Txapelketaren aurkezpen eguna baliatu zuten batzarrerako eta txapelketen hasierak dakarten ilusio eta indar berbera izan zuen batzarrak.

Arabari lekukoa Bertsozale Elkarteak hartuko diote: otsailaren 28an izango

dira batzarrak bi herrialdeetan, larunbaterekin. Atzetik etorriko dira Bizkaiko batzarra eta Gipuzkoakoa, biak martxoan eta ostegunetik: martxoaren 5ean eta 12an, hurrenez hurren.

### Herrialdeen ostean, Euskal Herrikoa

Martxoaren 15ean izango da Euskal Herriko Batzar Orokorra, Abadiñoko Txanporta kulturguneko aretoan. 10:30ean hasiko da batzarra, eta sarreraren ostean, 2025eko memoriak eta 2026ko egitasmoak aurkeztuko dira, diru kontu eta aurrekontuekin batera. Ohi bezala, herrialde bakoitzaren irakurketa ere ekarriko da batzarrera.

Bertsozale Elkartetik batzarretan parte hartzeko gonbita luzatu nahi diegu bazkide guztiei, komunitatearentzat ari garelako eta, beraz, komunitatearekin elkarbanatu nahi genukeelako iazko urteak emandakoa eta 2026ra begira egiteko duguna.



Senpereko Larraldea etxean egin zen 2025eko Batzar Nagusia. // XDZ



**MADDI ANE  
TXOPERENA IRIBARREN**

**DONIBANE LOHIZUNE.  
2026-01-31**

**XILABA BERTSOLARI  
TXAPELKETAKO TXAPELDUNA**

**Doinua: XILABAra jina nauzu**

Elena etxekoandre  
Anttoni hemen neskato  
gaur ere zenbat datozen  
hona lanera eskapo  
ta aldi berean Paristik  
zenbat kolono gisako  
gure hizkuntza ta lurrekin  
justu ez direnak gixako.  
Hamaika Bizkarsorotan  
botatako mila malko  
lore joko ta errientsek  
egin baitzieten planto  
txapela odolezko ta  
hautuzko amaxiendako  
zuek ezina guk eginaz  
hain harro zaudetelako  
zuek ekina guk eginaz  
hain harro zaudetelako.

# Bertso Udalekuetako izen-ematea zabalduko da martxoaren 2an

**Gurasoetako bat Bertsozale Elkarteko bazkide dutenentzat edota bertso-eskolako kide direnentzat hasiko da martxoaren 2an izen-ematea; gainontzekoek martxoaren 18tik aurrera eman ahalko dute izena.**

Bertsozale Elkartean 1998tik antolatzen ditugu Bertso Udalekuak. Euskal Herriko zazpi herrialdeetako bertsozaleak elkartzen gara bertan eta, besteak beste, helburu hauekin antolatzen dira:

- Bertsoaz gozatzea eta bertsoaletzea.
- Euskal Herri mailako harreman sareak sortzea.
- Lagunartean euskara hutsean aritzea; euskararen eta errealitate soziolinguistikoen aniztasunaz jabetzea.
- Partaideok autonomia garatzea eta taldean elkarbizitzen ikastea, aniztasunari leku eginez, parekidetasuna sustatuz eta balioak landuz.

Martxoaren 2an hasiko da izen-ematea gurasoetako bat Bertsozale Elkarteko bazkide dutenentzat edota bertso-eskolako kide direnentzat; goizeko 11:00etan zabalduko da izen-ematea bertsozale.eus atarian. Online galdetegia beteta eman beharko da izena. Txandak izen-emate ordenaren arabera betetzen dira, beraz, etorri nahi izanez gero bizi ibili! Izena emateko lehen epealdi hau martxoaren 15era arte egongo da zabalik. Ondoren, betetzeko geratzen diren txandekin bigarren izen-emate epea irekiko da gainerako interesdunentzat martxoaren 18tik apirilaren 13ra bitarte. Izen-emateak 11:00etan irekiko dira bi kasuetan.

Edozein zalantza edo galdera izanez gero, jo lasai Bertsozale Elkartera: (00) (34) 943 69 41 29 / [aisialdia@bertsozale.eus](mailto:aisialdia@bertsozale.eus)

## Txandak

**Bertso Udalekuetako** gazteak aurten bi gunetan elkartuko dira: 9-11 urtekoak Zuhatzako irlan (Uribarri Ganboan, Araba); eta gainerako hiru txandak (12-13, 14-15 eta 16-18 urtekoak) Getadar aterpetxean (Ezprogi, Nafarroa). Lau txandak uztailan izango dira.

Informazio gehiagorako bisitatu [bertsozale.eus](http://bertsozale.eus) webgunea

ZUHATZAKO UHARTEA, URIBARRI GANBOA, ARABA
9-11 URTEKOEN TXANDA
Egunak: Uztailak 26-30 (5 Egun)
Partaideak: 2015-2017 urteetan jaiok
GETADAR ATERPETXEA, EZPROGI, NAFARROA
12-13 URTEKOEN TXANDA
Egunak: Uztailak 9-15 (7 egun)
Partaideak: 2013-2014 urteetan jaiok
14-15 URTEKOEN TXANDA
Egunak: Uztailak 25-31 (7 egun)
Partaideak: 2011-2012 urteetan jaiok
16-18 URTEKOEN TXANDA
Egunak: Uztailak 16-24 (9 egun)
Partaideak: 2008-2010 urteetan jaiok



Lau txanda izango dira aurten ere Bertso Udalekuetan; denak, uztailan. //XDZ

# Finalurrekoen fasean sartu da Arabako Bertsolari Txapelketa

Oionen, Laudion eta Izarran jokatuko dira lehenengo faseko hiru saioak eta finalurrekoak jokatu dira orain; finala martxoaren 28an izango da, Gasteizen.

Aurrera doa Arabako Bertsolari Txapelketa. Dagoeneko jokatu dira lehen faseko hiru saioak: otsailaren 7an Oionen izan zen lehenengoa, otsailaren 15ean Laudion bigarrena eta otsailaren 21ean Izarran azkena. Horrela, erabakita geratu da zeintzuk izango diren finalurrekoetan kantatuko duten 12 bertsolariak.

Finalurrekoak martxoaren 7an eta 14an jokatu dira Dulantzín eta Aramaion, hurrenez hurren. Dulantzín saioan Aroa Arrizubieta Barredo, Asier Otamendi Alkorta, Ekaitz Samaniego Curiel, Iñaki Viñaspre Simon, Maddi Agirre Epelde eta Unai Anda Delika ariko dira kantuan; Aramaion, berriz,

Andere Arriolabengoa Bengoa, Danel Herrarte Nafarrate, Martin Abarrategi Sarrionandia, Peru Abarrategi Sarrionandia, Sabin Abarrategi Sarrionandia eta Xabi Igoa Eriz.

## Finala martxoaren 28an, Gasteizen

Finalurrekoen ostean etorriko da finala: martxoaren 28an izango da, Gasteizeko Europa Biltzar Jauregian, 17:30etik aurrera. Finalurreko zein finaleko arerak dagoeneko salgai daude [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atari berrituan.



Izarran jokatu zen lehen faseko azken saioa. //XDZ

## Eskolartekoari sintonia jartzeko prest?

Martxoaren 10ean bukatuko da lehiaketara aurkezteko epea; lanak sustapena@bertsozale.eus helbidera bidali beharko dira.

Eskolartekoa ezagun zaigun saguzarraren irudiarekin lotzen da, eta koloreekin, koloretsuak baitira saguzarrak dituen hegoak. Oinak buruan ditu eta hala izendatzen da ere. Irudia du, izena du... baina sintonia falta zaio. Horregatik, sintonia lehiaketa antolatu du Bertsozale Elkartek.

### Lehiaketaren oinarriak hauek dira:

- Sintonia bi iraupenetako bi artxibotan entregatuko da: 2 - 2:30 minutuko bat eta 30 segundoko bestea.
- Ezin du izan adimen artifizialarekin egindakoa.
- Ezin du letrarik izan, ez behintzat protagonismo handiarekin.
- Sintoniak Eskolartekoaren oinarriak islatu behar ditu.

Lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 10a izango da. Bi formatu hauetan aurkeztu beharko dira lanak: .wav edo .mp3 [sustapena@bertsozale.eus](mailto:sustapena@bertsozale.eus) helbidera bidalita.



Eskolarteko Sintonia lehiaketako irudia.



# Puntu jarrita

JOANE ALDALUR IRAZUSTA

Lagunek bultzatu ninduten berriz jende aurrean kantatzera. Lehenengo aldian ere halaxe izan zen; ez nukeen Eskolartekoan sekula kantatuko lagunek nire baimenik gabe nire izena eman izan ez balute. Ziurrenik zeu ere kideek adoretuko zaituzte etengabe oholtzara itzultzeko, Julene. Elkarri egiten diogu geure buruari egiten ez diogun aitortza.

Haurra nintzela hasi nintzen bertso-eskolan. Bi gauza eder eman zizkidan bertsoak: jolasa eta lagunak. Nerabetan, Eskolarteko Txapelketan kantatu nuen. Hemezortzi urte betetzean, gazte sariketa bati ezezkoa ematearekin batera egin nion uko bertsolari izateari. Neska gazte baten brillo handiegirik gabeko ibilbide tipikoa.

Halabeharrez edo nahita, baina oholztatik urrundu arren sekula ez naiz apartatu bertsoaren ekosistematik, lagunak mantendu naute harengandik gertu. Doinu, neurri eta errimen jolasa, ordea, ia erabat alboratu nuen bertsolaria ez izatea erabaki nuenean. Zorionez, Hasiberrien (eta berriro hasien) bertso-eskola feminista sortu genuen Zarautzen aurreko ikasturtean. Ez genekien zenbat gustatzen zitzaigun bertsoan aritzea berriz hasi ginen arte.

V. Señora Sariketak eman zigun itzulera epiko baterako oholta. Bertan egin zuten topo plazaren ertzetatik egindako (edo ertzetara bultzatutako) ibilbide okerrekin. Bertsozaleen errepikak ere ozen kantatu genituen, mediokritaterako eskubidea ospatuz. Kasualtatetik gutxi eta egiturazkotik asko zeukan bertan elkartu ginen emakume eta genero disidenteon bizipen partekatua.

Itzuli arren, ez ginen leku berera itzuli, eta eskerrak. Bertso-eskola feminista edo Señora Sariketa bezalako ekimen kolektiboek esker gaude berriz ere bertsoaren orbitan. Nora, zu duela gutxi hurbildu zinen bertsoaren inguruetara eta oholta zapaldu duzu Herriartekoan. Zer izan zen erakarri zintuena eta zer aurkitu duzu?

# Koplak

## Bapatean 2025 liburua eta audioa jasoko dituzte bazkideek

Urteak emandakoa liburu batean bildu du Bertsozale Elkarteak eta horrela sortu da Bapatean 2025. Eskariak egiteko epea amaituta, liburuxka bazkideen etxetara bidali da dagoeneko, hurrengo egunetan jasoko dute eskarian adierazitako helbidean. Liburuxkaz gain, hala eskatu dutenek audio formatuan ere jasoko dituzte bildutako bertsoaldiak. Gozatu!

# Poto-Finixa



Erori gabe!

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## Zabalik da Lasturko egonaldirako izen-ematea

Gipuzkoako bertso eskoletako gazteentzat asteburu pasa antolatu du Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak, urtero bezala. Egonaldia Lasturko aterpetxean egingo da apirilaren 24tik 26ra, Eskolarteko finalarekin hasita. Bertso eskoletako 13-20 urte bitarteko gazteek aukera izango dute bertsoaren aitzakian hainbat ekintza gozatu eta elkar ezagutzeko. Izena emateko [www.bertsozale.eus/gipuzkoa](http://www.bertsozale.eus/gipuzkoa) atarian dagoen formularioa bete behar da, apirilaren 16a baino lehen.



PUBLIZITATEA